



BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1995eko urtarrilaren 27. zenbakia. Doan banatzen da.



Etxebizitzaren zain



Ez dio Haziendari ordaintzen.



Haziendari ordaintzen dio.

Ez da bidezkoa betikoak ordaintzen ibili behar izatea.

Errentaren gaineko Aitorpena behar den bezala egin nahi izanez gero, baina zergei uko eginez, zatoz Euskadiko Kutxara.

Abantaila fiskal handiak lortzeko, dirua aurrezteko formularik erraz, seguru eta erentagarriena bilatzen lagunduko dizugu. Zatoz ahalik eta azkarren. Horrela, zure hurrengo Aitorpenak bukaera eztiatsua izango du.



Informa zaitez Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan, goizez zein arratsaldez. Edo 901 - 333 444 telefonoan, gaueko 10ak arte.


Abantaila fiskaleko Eperako aurrezkia




CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

saiakera bilduma dagoeneko salgai

- 1 *Manuel Larramendi: bizitza eta obra*
- 2 *Gerra Zibila andoaindarren begietatik*



2.000 pta



1.500 pta

Zure liburudendan eros ditzakezu

Erne bazkideak: Bazkunean bertan eros ditzakezue!



KULTUR
BAZKUNAREN
ARGITALPENAK

Aurkibidea

- 1. AURKIBIDEA.**
AIURRITARRAK
Joseba Erkizia: "Etxeko marka".
- 2. INKESTA.**
Eta zuk, non egiten dituzu erosketak?
- 3. ADUNA.**
Arazoak garraibideak direla eta.
- 4-5. ANDOAIN.**
Leitzarango biotopo babestua.
Aurten ez da moda jaialdirik izango.
- 6. ASTEASU.**
Nekazalturismoa: baserriaren geroa?
- 7. BILLABONA-AMASA.**
Dendetan euskaraz.
Euskal Txokoa.
- 8. ZIZURKIL.**
Gazte tailerra.
- 9. BASERRIA.**
Tolosako ganadu ferian.
- 10-11. ERREPORTAIA.**
Etxebizitzaren zain.
- 12-13. KIROLA.**
Billabona: 70 haur eta gazte judo ikasten.
- 14. ERRETRATU ZAHARRA.**
Andoaingo La Salleko ikasleak. 1943.
- 15. ZE BERRI? / LEHIAKETA.**
- 16. AGENDA.**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak.

Zuzendaria: Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia. **Erredakzioa:** Antxiñe Mendizabal, Amagoia Mujika, Ainhoa Oiartzabal **Argazkiak:** Manu Mujika **Komikia:** Iñaki G. Erro. **Publizitate arduraduna:** Mailu Ibarbia. **Banaketa arduraduna:** Iñosken Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 ISSN: 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

Aiurritarrak

ETXEKO MARKA



JOSEBA
ERKIZIA

Indurain, Fiz, Olan... markakoak ditugu, munduko txapeldunak. Badu Euskal Herriak nor zoriondua kiroletan azken bolada honetan.

Indurain hasi zitzaigun markaz kanpoko poza etxera ekartzen. Urte askotan isilean eta disziplina osoz egindako lanaren ostean, bost urte daramazki mailaz kanpo, tropeleko nagusi bihurtuta, historian inoiz izan diren bizpahiru ziklistarik handienen parera iritsita.

Gero **Fiz** igo zaigu atletismoaren aldre nagusiraino. Honek ere bidaia luzea egin behar izan du aurretik, krosaren negu lokaztuetan barrena. Krosean, korrikalari beltz nekazekin horiekin lehia gogorrean zaildu ondoren, Europako eta Munduko errege egin zaigu maratoian.

Orain, berriz, **Olanok** utzi du mundu osoa harri eta zur, Indurainekin erdibana Colombiako urre-zilar guztiak modu ezin ikusgarriagoan irabazita. Honek ere ez du, ordea, txapelketa Kolonbiako infernu hartan bakarrik irabazi. **Olanoren** infernua lehenago hasia zen, profesioaletara igo berritan talderik gabe geratu eta gorriak ikusi zituenean, aurtengo denboraldian bertan bi bider mina hartu eta hutsetik abiatu behar izan duenean, galdutako sasoi berreskuratzeke Pirinioetan gora eta behera, txalorik entzun gabe, gogotik saiatu denean. Gurpil zulatu batek hura geldiaraziko zuen! Bai zera!

Lehenago ere joanak dira urre bila euskaldunak Ameriketara, eta ez beti intentzio onez. Baina oraingo urrea lege onez irabazia du **Olanok**. Horregatik hunkitu gaitu horrenbeste eta horregatik txalotu eskuak urratu arte. Gainera Beterrikoa, auzo-auzokoa, dugu **Abraham**, Anoetan jaioa, Altzora aldatua, Andoainekin uztartua, Kaletxikiko seme kuttun izendatua...

Alabaina, **Indurain, Fiz** eta **Olan** kirolari gisa apartekoak direlako miresteaz gainera, duten izateko moduagatik estimatzen ditut nik oso. Seguru asko ez da anbizioz gabe lehena izatera iristerik izango. Baina hiru horiek argi asko erakutsi digute berekoia izan beharrik ez dagoela irabaztearren, ezta harroputza irabazi arren. Hirurak dira apalak, lagunak lagunak, garaipenak konpartitzen daitenak. Txapeldunak kirolean eta txapeldunak gizalegean.

Horrelako figuren beharrea gabilta euskaldunok. Izan ere Euskal Herritik kanpora lau pausu eman edo kanpoko komunikabideak pixka bat segitu besterik ez dugu, konturatzeko nola ikusten gaituzten kanpoan. Zoritxarrez, horretarako ere nahiko merito egin dugu. Beraz, eskerrak horrelako ikurrak ere -ikur positiboak, erakarriak, ereduak - sortzeko gauza badela gure herria!

Eta ez kanporako bakarrik, baita etxerako ere. Izan ere, hain handia da euskal gizartean bizi dugun batasunik eza eta haserrea, premiazkoa dugula zerbaitetan -kasu honetan kirolean- elkartu eta adiskidetu gaituenik edukitzea. Eta horrelako elkarguneak ditugun bitartean, ez dugu galtzen herri proiektu zabalagoak lantzen ere noizbait ikasiko dugun itxaropena.

Kirolari handi hauek jarri dute beren marka. Euskal herritar guztion zeregina da horiek jarritako marka gure Herriaren benetako marka, "etxeko marka", izan dadin lortzea.



ETA ZUK, NON EGITEN DITUZU EROSKETAK?

Gure bizilagunek etxerako oinarrizko erosketak non egiten dituzten jakin nahi izan dugu: denda txikietan ala handietan. Herri txikietan ohiko denda txikiek iraun egiten dute oraindik, baina gainerakoetan supermerkatu, hipermerkatu edo dena delako denda handiak irekitzen hasi ziren orain dela urte batzuk. Era berean herritarren

beharrak, arrazoi ugari direla medio, aldatu egin dira, eta askok jotzen dute denda handietara prezioengatik edota erosotasunagatik. Dena dela, nork bere ohiturak eta interesak izan ohi ditu. Horregatik, askorentzat eguneroko eginkizun diren erosketak non egiten dituzten galdetu dugu kalean.




MARIA MENDIBURU, JUBILATUA. ANDOAIN

Nik utzi diot erosketak egiteari. Lehen beti egiten genituen auzoko denda txikietan, besterik ez zegoen eta. Etxeokok berriz, ez dakit non egiten dituzten.



JUANA ALTÚÑEZ, ETXEKOANDREA. BILLABONA.

Denda handietan egiten ditut erosketak. Produktuak merkeagoak dira eta gainera, ugaritasuna eskaintzen dute. Denda txikietan, askotan, ez duzu aurkitzen behar duzuna. Hori bai, haragia erostera harategira joaten naiz, nahiago dut.



KOLDO SANSINENEA, TABERNARIA. ADUNA.

Denda handietan egiten ditut erosketak. Aukera gehiago dago eta gainera, prezioak baxuagoak dira. Hala ere, zerbait berezia erosteko denda espezializatuera joaten naiz. Etorkizun beltza dute denda txikiek; produktu espezializatuak salduz bakarrik aterako dira aurrera.



DORITA LORENZO, JUBILATUA. ZIZURKIL.

Eguneroko erosketak denda txikietan egiten ditut, eta astean behin joaten naiz supermerkatuara erosketara orokorra egitera. Nahiago ditut denda txikiak, bertako jabea ezagutzen duzu eta horrek konfidantza ematen du. Denda handietan berriz, hartu-emana hotzagoa da.



KARMELE LASA, IRAKASLEA. ASTEASU.

Eguneroko gauzak erosteko herriko denda txikietara joan behar duzu, baina nik nahiago ditut handiak. Supermerkatu handietan, dagoena ikusi, behar duzuna hartu, eta etxera itzultzen zara. Baina barazkiak eta batez ere, haragia eta arraina, denda txikietan erosten dut. Kalitatezko elikagaiak denda txikietan erosten ditut.



IÑAKE TREKU, ETXEKOANDREA. ANDOAIN.

Denda txikietan nahiz handietan egiten ditut erosketak: egunerokoa herriko supermerkatuetan erosten dut, eta hilabete osorako erosketak hipermerkatu handietan. Denda txiki-txikietara joateko ohiturarik ez daukat. Supermerkatuetara joatea berriz, gustatzen zait, denetik aurkitzen dut bertan.



HERRI OSTATUA

TABERNA - JATETXEA

HERRIKO PLAZA - ☎ 69 18 55 - LARRAUL

Hiru Anaiak

GOZOTEGIA

PASTELERIA

Zumea, 18 ANDOAIN



ARAZOAK GARRAIABIDEAK DIRELA ETA

N-1 ERREPIDEKO LANAK AMAITZEAN AUTOBUSA URRUTIAGO HARTU BEHARKO DA

Adunar gehienak autoz mugitzen dira hara eta hona, baina bada autobusean ibiltzen denik ere. Edonora joateko garaian garraio publikoetan ibiltzen denak nahikotxo ibili behar izaten du Tolosa edo Donostia aldera doan autobusa hartzeko. N-1 errepideko lanak bukatzean autobus geltokia are urrutiago geratuko da.

Andoaindik Billabonarako N-1 errepide tartean lanetan ari dira eta bertan dago autobus berdeen geltokia. Leku horretaraino joan ohi dira adunarrak autobusa hartzera eta nahiko ibili behar izaten da bertara heltzeko. Bide lanak amaitzean ziurrenik geltokia oraindik urrutiago geratuko da, eta kezka handia agertu dute adunarrek, garraio publikoetan ibiltzen den gehiengoak jende edade-

tua baita, hala nola emakumeak euren seme-alabekin. Hori dela eta Udalak Diputazioko Garraio Sailarekin hitz egin zuen autobus geltokia hain urruti gera ez dadin. Diputaziok oraindik ez du erantzun eta eurenkin noiz elkartuko diren zain dago Udala. Bilerak bat egitea espero dute geltokia lekuz mugitu ez dadin.

N-1 errepideko lanak 1996ko abuztuan amaituko dituzte eta kezka-

tzeko goizegi dela dirudien arren, lanak amaitu eta gero, ezingo da ezer egin. Hori dela eta, lehenbailehen Diputazioko Garraio sailarekin hitz egiteko asmoa dago.

Adunako herriak arazoak izan ditu betidanik beste herriekin komunikatzeko garraio bide publikoei dagokienez. Arazoak arazo, badirudi gauzek onera egin beharrean, okertu egingo direla eta autobus geltokia lekuz mugitzeak itxuraz larriegi ez dirudien arren, Adunak duen garraio bide publiko bakarria zalantzan jarriko duela.

S T O P
LIBURUDENDA

TESTU LIBURUAK
AUKERA ZABALA LIBURUTAN
(Ingelesean, frantsesean,
italieraz...)

Agustin de Leiza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03



JOSEBA
Altzariak
KALETXIKI, 6 ANDOAIN
FAX ETA TELF. 59 07 61


Labesaitu
nahidregia
**ETXEOENTZAT
APARTEKO
OGIA!!**

Kale Nagusia, 19 - ☎ 69 17 11 - BILLABONA

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



● kutxa fundazioa

● fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián



LEITZARANGO BIOTOPO BABESTUA

TALDE EKOLOGISTEK ITXURAKERIATZAT JO DUTE IZENDAPENA

Eusko Jaurlaritzak Leitzaran ibaiak Nafarroako muga zeharkatu eta Plazaolako urtegitik Otitako arranaztegiko urtegitira bitarteko ibai arroa eta ertzeetako bost metroak izendatu zituen joan den hilabetean biotopo babestu, hala nola tarte horretako ibaiadarrak eta Maloko eta Ubaran errekek. Andoingo Ekologistak eta Eguzki taldeak ez dute izendapena begi onez ikusi, izendapenarekin batera biotopoa nahiz ingurua babesteko neurririk aurkeztu ez delako, eta taldeek orain arteko prozesuan parte hartu ez dutelako. Erabakiaren aurka errekurtsioa aurkezteko asmoa daukate ekologistek.


Biotopo babestuak legez hainbat eta hainbat ekintza arautzen ditu: ikerketa zientifikoak, paseoak, ibilaldiak, eta egungo nekazal eta abeltzain ustiapenak baimentzen ditu; bestalde, kotxe trafikoa, ibaia arroa kaltetu dezaketen ekintzak, ehiza eta bertakoak ez diren landareen landaketa galerazten du.

Talde ekologistek bailara osoa arautu behar dela diote, besteak beste, balio ekologikoa handia daukaten beste kokagune batzuk ere badaudelako, Ibarrotako hariztia adibidez. Lur eremuaren %77a publikoa izanik gainera,

neurri batzuk erraz hartzerik bazeukatela uste dute. Halaber, beste inolako neurririk hartu gabe era horretako izendapenak egitea arriskutsutzat jotzen dute, jende asko erakartzen dutelako ingurunean kalteak eraginez.

DENA BERDIN


Izendapenak momentuz ez du aldaketarik ekarri, lehen egiten ziren ekintza berberak egiten dira gaur egun. Andoingo talde ekologistako partaide den Garikoitz Plazaolaren esanetan. "Inguruneke iharduerak banan-banan aztertu behar ziren ezer baino lehen, -gaineratu digu- eta neurriak hartu". Zentral elektrikoek kasua aipatu digu: normalean, nonbait, behar baino ur gehiago hartzen dute ibaitik eta udan ur eskasia eragiten dute. Arrantzari dago-kionez, orain arteko politikan kontrarian handiak daudela argitu digu: "Ingurune horretan arrantza intentsiboa egiten da, eta ondorioz garai iritsitakoan ibaia amuarrainez birpopulatuzen dute, baina aldi berean amuarrainez bakarrik birpopulatu, ibaiak bioaniztasuna galtzen du, eta hain zuzen ere, bioaniztasuna izan da izendapenaren arrazoi garrantzitsuenetako bat". Ohikoak diren akanpadek ere inguru-



Gune babestua

nea babesten ez omen dute asko laguntzen. Hori guztia dela eta, legeak agindu bezala, urtebete baino lehen bertako baliabide naturalen erabilera arautuko duen plangintza eskatzen dute.

Gainera, biotopoaren barne dagoen Ubaran errekekaren inguruan aurrerantzean arazoak egongo direla aurreratu digu Garikoitzek. Izan ere Urrietako Udalak bertatik ura hartzeko baimena lortu du Iparlat enpresak daukan ur beharrari erantzuteko. Biso europearra izeneko ugaztuna bizi omen da inguruan, eta errekekako ur galerak espeziearen kaltetan egingo duela uste du.




ILLUMBE, S.L.
Autoelektrizitatea



LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK

Pablo Gorosabel, 48

☎ 65 54 76 TOLOSA

Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa

☎ 59 24 11 ANDOAIN

AURRERA TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!
ZIZURKIL



AURTEN EZ DA MODA JAIALDIRIK IZANGO

ANTOLATZAILEEK UDALAREN AXOLAGABEKERIARI LEPORATU DIOTE ERANTZUKIZUNA

Antolatzaileen esanetan ez aurten, ezta aurrerantzean ere ez da moda jaialdirik izango Udalaren laguntzaren bat jaso ezean. Arrate pilotalekuan antolatzetik Allurralde kiroldegian antolatzera ekarri duen kostuaren bikoizketaren ondorioz, urtetik urtera desfileari ekonomikoki aurre egiteko gero eta arazo gehiago izan dira, nahiz eta jendearen harrera beti ona izan den, eta azkenean, merkatariek ezinean, jaialdia bertan behera uztea erabaki dute. Ikastolak ere iaz ekitaldian parte hartzeari utzi zion. Jose Antonio Pérez Gabarain alkatearen esanetan, antolatzaileek ez dute inoiz auzia konpontzen saiatzeko beregana jo.

Hamabigarrena izan behar zuen aurtengo edizioa antolatzen hasi zirenean, erabaki zuten merkatariek bertan behera uztea, diru ekarpenak bikoiztu egin behar zuela ikustean. Lehenengo eta behin kirol patronatura jo zuten laguntza eske. Kultur batzordera joateko esan omen zieten bertan. Eta azken hauek ere beren egitekoa ez zela esanez utzi omen zituzten. Batetik bestera ibili ondoren, merkatal etxe batzuetara jo zuten laguntza eske. Pili Jiménez antolatzaileetako baten esanetan, eurak ez dute inoiz dirulaguntzarik eskatu, bai ordea erraztasunak, kiroldegiaren alokairua merketuz adibidez. Baina patronatuak ere beti eman omen die ezetza. Urte batean besterik ez dute Udalaren dirulaguntzarik jaso.

Desfilearen aurrekontua 700.000 pezetakoa izan da gutxi gorabehera urtero. Diru sarrerak ikusleak beraiek eta merkatarien diru ekarpenak izan dira beti. Dena dela, Arrate pilotalekuan antolatzen zutenean kostua txikiagoa zen; taulatua jarri eta aulkiak alokatu baino ez zuten egin behar. Frontoiak ordea, segurtasun neurriak betetzen ez zituela eta, Allurralde kiroldegian hasi ziren antolatzen, eta aldatetak kostu igoera ekarri zuen: kiroldegia alokatu beharra zeukaten, taulatua jarri eta garbiketak egiten zuten Udal langilearen ez-ohiko orduak, aulkiak, musika eta abar ordaindu. Taulatua esaterako beti jarri izan dute Ikastolako ikasleek ikasturte amaierako bidaia egiteko dirua eskuratzeko. Iaz antolaketan parte ez hartzea erabaki

zuten horren lan handiaren truke jasozten zuten etekin txikia ikusita.

HERRITARREN ERANTZUN ONA

Antolatzaileek urtetik urtera ikusi dute ikusleen kopuruak gora egiten. Parte hartzen zuten hemezortzi merkatariek euren dendak ezagutzera emateko aukera zeukaten. Tabernek ere halako egunetan nabaritzen omen zuten bestelako mugimendua. Musutruk lan egiten zuten jende ugari biltzen zen antolaketan. Baina, hala ere, arazo ekonomikoek bultzatu ditu antolatzaileak bertan behara uztea.

Jose Antonio Pérez Gabarain alkatearen esanetan, antolatzaileek ez dute inoiz beregana jo. Aurtengo aurrekontuetan desfilerako dirulaguntzarik au-



Iazko edizioa

rrikustea ezinezkoa zela esan digu. Baina, arazoaren berri izanez gero, kirol patronatuaren aurrean bitartekaritza lana egin eta laguntzeko prest egongo zela. Hala ere, kirol patronatua erakunde autonomoa dela adierazi digu eta erabakiak berak hartzen dituela.

MAIZA ZINEMA ARETOA BERRIREKITZEKO ESKARIA

DISKOTEKA-ZINEMA ARETOA

Maiza zinemako arduradunek aretoa berrirekitzeko eskaria egin berri dute Udalean. Zinema areto soil izan beharrean, diskoteka ere egokitu nahi dute bertan solairu berri bat eginez. Udalak gogo onez hartu du eskaria, eta egokitze lanak egiteko baldintzen zuzentasuna aztertu ondoren, Eusko Jaurlaritzarari igorriko zaio eskaria onespina eman dezan. Udala bera azkenengo urteetan herrian antolatzen diren hainbat ekitalditarako aretoa alokatu nahian ibili da, bestalako areto falta ikusita. Gaur egun zinema saioak eskaintzeko azpiegitura bakarra La Salle-Berrozpe ikastetxeak eskaintzen du, eta bertan antolatzen dira haurrentzako zinema saioak.

Udal-artxibategian eman diguten informazioaren arabera, Maiza zinema aretoa dagoen eraikuntza 1955. urtean eraiki zen. Zinema aretoa 1958. urtean inaguratu zen. Handik bost urtetara handitu zen aretoa. Urte batzuetan itxita egon ondoren 1981. inguruan eraki zuten aretoa "Cine Arrieta" izenpean, eta diskoteka saioak egin izan ziren tarteka. 1990. urtean itxiarazi zuen Udalak aretoa.



NEKAZALTURISMOA: BASERRIAREN GEROA?

BASERRI UGARIK ESKAINIKO DUTE ZERBITZUA

Hiru urte igaro dira Urkidizar baserria nekazalturismoa eskaintzen hasi zenetik. Saskarate baserriak urte bukaerarako konponketak amaituko ditu eta berehala izango da nekazalturismo gidan. Nekazaritzaren biziraupena kolokan dago eta baserriar askok zerbitzu hau eskaini beharko dute baserria zutik mantentzeko.

Eusko Jaurlaritzak eta Diputazioak emandako dirulaguntzen bidez, zerbitzua eskaintzeko baserriak egin behar dituen konponketak ordaintzen dira, gastu handienak behinik-behin. Baserria berri eta egokitu ondoren, jendea etortzea baino ez da falta. Nekazaritzan lanean jarraitu ahal izateko baliabideak ematen dizkie turismoak, hori da behintzat nekazalturismoaren helburua.

Nekazalturismoa eskaintzen hasi zen urteetan edozein baserriarrek lor zezakeen dirulaguntza baina egun, ganadu kopuru zehatz bat izan behar dute baserriarrek dirulaguntza jasotzeko. Hasierako askok nekazalturismo zerbitzuarekin batera taberna eta jatetxea ere eskaintzen zuten. Saskarate baserriko Nerea Urkolak esan digunez "ez da zuzena guk haiek adina zerga ordaintzea, baserriatik soilik bizi garenok gutxiago irabazten baitugu". Aspaldi egin nahi zituzten konponketak eta baserria ondare historikoa denez, ezin zuten baserria edonola konpondu. Beraz, nekazalturismoa jartzeko dirulaguntzari esker ari dira baserria konpontzen, baina lan guztiak ordaintzeko nahikoa ez dela azpimarratu digu Nereak.

UDAN BATEZ ERE

Saskarategi, Urkidizar baserriak bezala, lo egiteko lekua eta gosaria eskaintzen du oraingoz. Urkidizar baserriko Joxepi Imazek esan digunez, "sei logela soilik jarri daitezke, hamabi lagunentzako, alegia" eta baserri baterako nahikoa dela esan digu. Kanpotar ugari etorri zaizkio hiru urte hauetan zehar, nahiz eta udan eta oportetan bakarrik etorri jendea: "Asteburuetan ez da jende asko etortzen, kostaldeko baserrietara jotzen dute" esan digu Imazek.

Nekazalturismoa eskaintzen duten baserriarrek kontu handia izan behar dute garbitasunarekin: ikuiluak, esate batetarako, etxetik kanpo egon behar du. Horrez gain, gutxienez, bost urtetan eskaini behar dute zerbitzua, nekazal lanekin jarraitzearekin batera. Baserriarrek esan digutenez, egoera larrian dago euskal nekazaritza eta egun, baserriko ustiakuntzaren bidez eta nekazalturismoari esker aterako dira aurrera. Hala ere, askok, kalera joan beharko dute lan egitera.



Goitik behera konpondu due Saskarate

BIDE ZAHARRAK KONPONDUKO DITUZTE

Goruagoena, Hondartzabarrena eta Erjizu baserrietako bideetako zuloak bete dituzte eta gutxian, hormigoiez estaliko dituzte. Urte asko igaro dira bideak egin zirenetik eta urteak igaro ahala bideen egoerak okerrera egin du. Orain, herritik baserriarako bideak txukunagoak daude eta gutxian, erabat berrituta egongo dira.



HOL - ATZ



VACSOL - WR' TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Elbarrena, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
ADUNA

PATXINE JATETXEA



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL
SUKALDARITZA ETA ETXKO POSTREAK
Errementari,1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU



DENDETAN EUSKARAZ

Billabona-Amasa

MERKATARIAK EUSKALDUNTZEKO SAIOA ARRAKASTATSUA IZAN DA

Askotan euskaldun askok trabak izaten ditugu erosketak egitera joaten garenean. Harategira joan eta egosteko haragia gazteleraz eskatzea maiz nekeza egiten da. Hala ere eta zorionez, gero eta dendari gehiagok daki euskaraz eta merkataritza ikastaroari esker, aurrerantzean arazo gutxiago izango ditugu euskaraz eskatzeko orduan, oraindik egiteko asko badago ere.

Euskara sustatu asmoz "Euskara Merkatal Mundura" egitasmoa bideratu zuten Billabonako eta beste herri batzuetako udalek. Eskaintza batzuk luzatu, eta konpromezu batzuk onartu zituzten dendariak. Egitasmoaren ondorioz, merkataritza ikastaroa egiteko prest agertu ziren merkatariekin talde bat osatu zen, eta 20 orduko ikastaroa jaso zuten euskaltegian. Orokorrean, dendariei aukera ezin hobea iruditu zaie eskaintza, urte osoko ohiko ikastaroetan aukerarik ez baitute izaten denbora arazoak direla eta. Dendariak bukatu dute jadanik ikastaroa, eta emaitza ezin hobek jaso dira bertan. Datozen ikasturteetan iaz aurrera ema-



Dendariak pozik daude ikastaroaren emaitzekin

niko esperientzia onari esker, ateak zabalik daude honelako eskaintzak errepikatu eta berriak egin ahal izateko.

Bien bitartean udalek jarraipen zuzena egiteko asmoa dute dendariak euskara hobetzeko bidean ematen diren urratsak jakin asmoz, eta era horretara oraindik euskalduntzeko bidean ez dauden dendari berriak erakartzeko.

Billabonan hemendik aurrera euskara denda gehiagotan egongo da, eta euskaraz hobeto moldatzen garenek, ezberrik gabe, abantaila asko izango ditugu merkataritza euskalduntzeko egitasmoari esker.

EUSKAL TXOKOA

HAUR ERDALDUNEK LARUNBATETAN EUSKARA LANTZEKO AUKERA DUTE

Euskal Txokoa 1991. urtetik lantzen ari den egitasmoa da. Euskal Txokoaren helburua ingurune erdalduna duten haurrek euskara lantzeko beste aukera bat edukitzea da. Guraso erdaldunak dituzten haurrek eskolan euskaraz bizitako orduz gain, larunbatetan euskaraz bizi eta ongi igarotzeko parada izaten dute Euskal Txokoan.

B ereduari ikasten duten haurrei zuzenduta dago bati-pat. Hala ere, D ereduari dabilzanak ere maiz jotzen dute Euskal Txokora. Hogeiren bat haurrez osatutako bi talde egiten dira urtero eta ikasturteak irauten duen bitarteko larunbat guztietan biltzen dira.

Lau urteko esperientziak erakutsitakoaren arabera, haurrak oso gustora biltzen dira larunbatero, euskara jo-

lasen eta ibilaldien bitartez ikasten baitute. Euskal Txokora gerturatzen diren haurrek urte hasieratik bukaera bitartean aurrerapauso handiak ematen dituzte mintza praktikan.

IZENEMATEA

Larunbatero goizeko 10.00etatik 12.30ak bitartera ibiltzen dira beren zereginetan eta noizean behin pailazo, txo-txongilo eta beste denborapasa batzuk antolatzen dituzte herriko haur guztientzat.

Ikasturte osoa 4.800 pezeta ordaintzen da eta erreztasunak ematen dira ordaintzeko zailtasunak dituztenentzat. Aukera paregabea da txiki-txikitatik herria euskalduntzeko. Dei berezia zabaltzen zaie talde horietan parte hartzeko aproposak diren haurrei.



Zabala
Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI

OTSAZ

Etxebizitzen salerosketa


Kale berria, 58 ☎ 69 08 94 BILLABONA



GAZTE TAILERRA

GAZTEEN GUSTOKO ESKULANAK EGITEN DITUZTE

Hamalau eta hemeretzi urte bitarteko zazpi neskek osatzen dute gazte tailerra. Larrua lantzeko ikastaroan eman zuten izena baina taldea ez zen osatu. Ondorioz, eskulanak egiteko ikastaroa eskaini die Kultur Etxeak. Zapiak, belarritakoak eta pitxi ugari egiten dituzte astean behin biltzen diren gazteek.



“Kolorezko jantziak, belarritakoak, eskumuturrekoak..., egunero erabiltzen ditugun gauzak egiten ditugu”, esan digu tailerlean dabilen Izaro Lizarragak. Izan ere, guztioi atsegin zaigu egunero erabiltzen ditugun jantziak eta pitxiak gure eskuz egitea; inongo dendak ez du bakoitzak bere buruan duen arroparik edo pitxirik. “Ikasten ditugun eskulanek praktikotasuna dute, eta hori da guk nahi genuena”, gaineratu digu Garazi Azkuek. Halere, hasi berriak dira eta oraindik ez dute erabaki ze teknika edo eskulan mota landu nahi duten.

Inoiz horrelako ikastarorik egin gabeakoak diren arren gogoz hartu dute. Eskulanak salmentan jarriko dituzten galdetu diegu eta “ondo pentsatu beharrekoa da hori” erantzun dute gazteek eta “ikasi ahal pentsatuko dugu zer egin burutzen ditugun eskulanekin” gaineratu digute.

BEHIN-BEHINEKO UDAL-KONTRATAZIO IRIZPIDEAK

Udalak aho batez onartu du datozen lau urteetan lanbide ez kualifikatuen ordezkapenak arautuko dituen irizpideak.

Udal-langile asko dira euskaltegira joaten direnak. Bestalde, oporrak hartzen dituztelako edo, askotan hutsik gelditzen dira lanpostu ez kualifikatu batzuk. Ondorioz, urtero ordezkapenak egin behar direla eta, ondorengo herritar hauek izango dute hemendik aurrera kontratazio aukera: aurtan, dirulaguntza sozialak jasotzen ari direnak; datorren urtean, inoiz lanposturik izan ez dutenak; 1997an berriz, berrogeita bost urtez gorakoak; 1998. urtean, guraso bakoitzeko famili buruak; 1999. urtean berriz, sendatze bidean dauden drogazaleek.

ESKAITZA UGARI

Eskulan mota asko egiten ikasiko dute ikastaro osoan zehar: jantziak koloreztatzen; buztinezko pitxiak zein estaiñuzkoak egiten; makramezko gerrikoak eta beste hainbat eskulan gehiago. Eskulanak egiteko materiala berriz, birziklatua da. Zakarretara botatzen diren gauzak erabiliko dituzte eta baita edozein txokotan aurki daitezkeen egur eta harri zatiak ere.

J. Antonio URBIETA

• Garraioak: 16m. grua
• Urte osoan su egurra
• Bere garaian lastoa eta belarra

Kale Nagusia, 4 - 2. ASTEASU
Tel. 69 30 92 - 69 26 76

fotocolor
ERREBELATUA ORDU EAN

**Ezkontza, Jaunartze, e.a. en erreportaiak.
Lan Industrialak**



Jose Ignacio Unanue
Juan Bta. Erro 1 - ☎ 59 43 32
20.140 ANDOAIN

TOLOSAKO GANADU FERIAN

ASTEASUKO ETA ZIZURKILGO BASERRITARREK OKELAREN EUSKO LABELA DUTE EGUNOTAN HIZPIDE

Oraindik ez dira inguruko baserritar asko label okela ekoiztera animatu, eta Billabonan label okela saltzen duen harategi baimendu bakarra dago. Hala ere, baserritarrek ez daude ezjakitun, eta bilerak ari dira egiten, label okela ekoizteak ekarriko dizkieten aldekoak eta kontrakoak ari dira, ziur aski, neurtzen.



Jabier Ibarbiak gogoz erakutsi zigun bere ikuilua

Label okela ekoizten hasteko arau batzuk bete behar ditu baserritarrek eta kontrola ere handia da: ikuiluen eta pentsuaren azterketa, kontrolak, merkatu berezia eta abar. Horregatik baserritarrek poliki-poliki ari dira bide berri hau jorratzen.


Jabier Ibarbia zizurkildarrarekin hitz egin dugu gure baserrietako haragiaz, eta bere ustez labela izan ala ez, bertakoa kalitatezko haragia dela ziurtatu digu: "Larrea hazitako ganadua da hemengoa, batere hormonarik gabekoa". Halal ere, EHNE sindikatuak ezagutzera eman dituen datuen erabera Euskal Herria osoan ekoizten den okelaren %25a bakarrik da labela, eta esparrua baserritar gehiagori zabaldu behar zaiela dio EHNEk.

OKEL KONTSUMOA

Azkenengo urteotan okel kontsumoa %25ra jaitsi da datu ofizialen arabera. Eta neurri handian kanpoko okel

salmentari leporatzen zaio errua. Jabier Ibarbiak berak berretsi digu ustea: "Inguruko harakin askok bezeroak irabazi zituzten kanpotik okela ekarriz eta merkexegoa salduz, baina gaur egun bertako okela saltzen duten harakinek daukate bezero kopuru handiena". Azpeitiko, Tolosako eta Arrasateko harakinak hasi ziren lehenengoz label okela eskaintzen. Gaur egun 24 harategi baimendu daude Gipuzkoan.

PEDRO OTEGI ASTEASUARRAK IRABAZI ZITUEN TOLOSAN FRISON ARRAZKO ABELBURUEN LEHIAKETAN LEHENENGO HIRU SARIAK



Urriaren zortzian ospatu zen, jendez gainezka, Tolosako XXVI. ganadu feria, Gipuzkoako garrantzitsuenetakoa. Berrogei baserrietako 140 abelburu bildu ziren bertan. Urola inguruko baserritarrek izan ziren ugariak, hala ere sariak Asteasura, Balarainera, Irunera eta Urretxura eraman zituzten.

Hiru sari eraman zituen Pedro Otegi asteasurak frison arrazako bigantxa lehiaketan: 12-18 hilabeteko bigantxa saria; txahala egin gabeko 18-30 hilabetekoei ematen zaiena; eta 2-3 urte bitartekoei dagokiena.

Ohiko lehiaketaz gain ferian bildu ziren guztien arreta jaso zuen behia zegoen erakusgai: egunean 48 litro esne ematen dituen behia, eta ferian bertan gainera, bere hiru txahal, eta hiru hauen sei txahalak zeuden. Enbrioi aldaketaren ondorioz lortu da hori guztia, gaur egun abeltzaintzan lantzen ari den teknika berria.



**AUTOEN MEKANIKA OROKORRA
ZABALAGA TAILERRAK**

Ama Kandida Etorbidea. DENAC Poligonoa, 203. Pabeloia
Telefona 30 01 69 ANDOAIN



KALE BERRIA, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49




**ZUBI
AUTO ESKOLA**

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

ETXEBIZITZAREN ZAIN

LASARTE-ORIAKO TXABOLA HERRITIK ZIZURKILERA

Orain dela bi urte sinatu zuen hezitzaile sozial talde batek Diputazioarekin hitzarmena "gutxiengo etnikoak" izeneko programa baten bidez Lasarte-Oria irteeran txaboletan bizi ziren ijito portugaldarrekin lan egiteko, eta gizarte normalizatuari sartzeko lehenengo urratsak ematen hasteko. Lehenengo asmoa ijitoak txaboletatik atera eta etxebizitzetan bizitzen hastea izan zen, horretarako alde aurretik egokitze prozesua burutuz. 35 familia bizi izan dira bertan hamar urtez. Maiatza inguruan irten ziren azkenengo laurak. Azken hauentzat ordea, ezinezkoa izan da etxebizitzarik aurkitzea eta Diputazioak Frasieron urteetan izan duen haur etxean egokitu ditu. Sei hilabete baino gehiago igaro dira lau familiak txaboletatik irten zirenetik, eta bertako bizimodua txarra ez den arren, irrikaz daude etxebizitzaren zain.



txabola herrian bazi dira guztiak

Portugaldar jatorriko ijitoak dira Lasarte-Oria zeuden guztiak. Ia Zaira ikutuz Espainiarekin muga egin duen Tras-Os-Montes izeneko Portugalgo eskualderik pobreenetik irten ziren aspaldi, bizimodu hobearren la. Mediterraneo osoa zeharkatu ondoren orain dela hamar urte ingurure artean ezarri ziren, eta orain dela gutxi arte bertan bizi izan dira geita hamabost familia.

Txaboletan biziz, gizarte normalizatu erabat at bizi izan dira, getoetan, erabateko marginaltasunean. Bertan jaio dira haur asko, bertan hazi, eta orain dela gutxi arte ez dituzte ezertu ohiko gizartean bizi izateko oinarriko erreferentziak. Erabat isola-

tuta egon dira. Haurrak Lasarteko ikasketxe publikora joaten ziren, baina egunerokotasunik gabe askok, izan ere eskolarako motibazioa, beren etorkizun pobrez jabetuta, oso txikia izan ohi da normalean. "Bestalde, kontuan hartzekoa da -esan digu Ernestok, hezitzaileetako batek- ijitoak haurtzarotik heldutasunera azkar igarotzen direla, nerabetasuna ia ezagutu gabe. Gazte ezkontzen dira, edota ezkontzeko hitza emanda daude. Neskak etxeokandre lanetan hasten dira, eta mutilak kanpora irteten dira bizibide bila". Bizibideari dagokionez, beti egin izan dituzte lan marginalak papera, kartoia, txatarra edo algak bilduz eta salduz. Horrezaz gain familia guztiek

kobratzen dute soldata soziala deituriko dirulaguntza, eta asko kalean eske ibiltzen ziren orain arte.

INORK EZ DITU MAIZTER NAHI

Etxebizitza eta egokitzearen soziala dira gizarte normalizatuari sartzeko oinarriko baldintzak. Dena den, edozeinek etxebizitza falta baldin badauka, are gehiago ijitoek: jendeak ez ditu maizter hartu nahi, eta beren baldintzak kontuan hartuz, ezin dute erakundeek baliabiderik gabeko herritarrei eskaintzen dieten etxebizitzetako batera jo. "Hiru urtetan egin dugun kanpainaren ondoren", esan digu Mamenek, "alokairuan jarritako bost etxebizitza besterik ez ditugu lortu".

TXABOLA HERRITIK IRTEN ORDUKO, ITZULI EGIN NAHI ZUTEN

Ijito hauek urteetan eskatu izan diete erakundeetara etxebizitza. Hala ere, denborarekin konturatu dira etxebizitza eskaini eta arazoa ez dela hor bukatzen, izan ere etxebizitza batean bizitzeak zergak ordaintzea, bizilagunetik errespetoa eta auzoko bizimodurako oinarriko ohitura sozialak barneratzea eskatzen du. Horregatik, saltoa ezin daiteke besterik gabe eman, izan ere hezitzaileek beraiek esan digutenez txabola herritik irtetea kasu askotan traumatikoa izan da: "Irten bezain laster, itzuli egin nahi zuten".

Bestalde, gaur egun etxebizitzetan dauden ijito familiak erabat sakabana-tuta daude: Intxaurrondon, Azpeitin, Oiartzunen eta abar, eta berez bereiztea latza bada, are gehiago komunitate marginaletan, elkarren arteko beharra handiagoa baita. Dena den, lehenengo izua gainditu ondoren, aurrerako prozesua ona izan omen da gehienetan. Drogak tartean egoten diren kasuetan arazoak izaten omen dira,

baina hori ez da gertatu ijito portugaldarren artean, komunitatean ez baitzegoen ez kontsumorik ez salmentarik.

ZIZURKILEN BIZIMODUA

Zizurkilen bizimodua orain arte ez da txarra izan. Hala ere, sei hilabete baino gehiago egin dituzte bertan, etxea ez dago beren beharretara egokituta, ez daukate intimitaterik eta ohiko elkarbizitza arazoak sortzen ari dira. Dena den, nola edo hala, aurrera egiten ari dira: haurrak Lasarteko eskolara joaten dira lehen bezala, eta gizonezkoek orain arteko lanbideetan jarraitzen dute. Bien bitartean zori-oreko etxebizitzaren zain daude, eta lekuz aldatuko direnerako prestatzen ari dira.

Hezitzaileen artean integrazio hitza oso begi onez ez dutela ikusten iruditu zaigu, beharbada, horren kultura ezberdina edukita, gure artean integrazioa ia ezinezkoa delako. Hala ere, integrazio osoa posible ez bada ere, bi komunitateen artean errespetuzko harremanetara iritsi daitekeela uste dute. Beren kulturak galera prozesu handia jasan du, eta gaur egun ohitura eta folklore ezaugarri batzuk izan ezik, beren arbasoen aztarnaz ezer gutxi dakite. "Euskal Herrian, gainera, ez dago oraindik etorkinari harrera kultura esaten zaiona", esan digu Ernestok, "ez da Frantzian edota Britania Handian bezala". Eta gainera, euskal kultura erabat arrotza zaiela aipatu behar da, nahiz eta eskolan haurrek

BEHIN ETA BERRIZ ENTZUN BEHARRA DAUKAGU LANGABEEI ADIBIDEZ, EZ ZAIELA ETXEBIZITZARIK ESKAINTZEN

euskara erraz ikasi.

Hezitzaile hauen ustez, erakundeek pauso garrantzitsua eman dute horrelako proiektua bultzatuz, "batez ere batere popularrak ez direla kontuan hartuz", zehaztu digu Ernestok, "kokoteraino gaude erakundeek ijitoei etxebizitzak ematen dizkietela, eta langabeei edo gazteei adibidez, ez dietela ematen entzuteaz". Horrelako kasuetan jendeari ze erantzun ematen



Mamen eta Ernesto

dioten galdetu diegu: "Txabola batean, erabat marginatuta bizi den baten batek ez badu, nolabaiteko diskriminazio positiboa merezi, akabo ustezko ongizate gizarte honetako oinarrizko zutabeak!", erantzun digute.

GERO ETA IJITO GEHIAGO GURE ARTEAN

Dena dela, era honetako laguntzek bestelako arazorik ere sortzen dutela aitortu digute. Hain zuzen ere, Lasarte-Oriako eredu arin zabaldu da inguruko beste komunitate batzuetako ijitoen artean, eta antzeko aukerak emango zaizkiela pentsatuz ari dira gure herrietara etortzen. "Oreka bilatu beharra dago", esan digu Ernestok,

nak, badaki ordaina garestia dela. Dena den, ijitoak Zizurkilen ikusita, gutako askok baino baliabide gehiago dauzkatela iruditu zaigu, izan ere beraiek ez dute inongo arazorik atzera egin, eta txabola herrira edo zubi azpira itzultzeko.



Eskolatik itzulean jolasean

BILLABONA

70 HAUR ETA GAZTE JUDO IKASTEN

JUDO A EDO "MALGUTASUNAREN BIDEA"

Hiru taldetan banatuta 5-7 urte bitarteko 70 haur eta gaztek egiten dute judo Billabonan, sambo modalitatean Espainian eta nazioartean lehenengo postuak lortu dituen Alberto Garaioa andoaindarraren zuzendaritzapean. Ekialdetik etorria, aspaldi egiten da judo gure artean, nahiz eta Japonen kirol soil bat baino zerbait gehiago den, bizitza bideratzeko filosofia oso bat, alegia. Andoaindarrak judoa ez dela kirol gogortzalea ziurtatu digu.

Judoa, karatea, samboa, taiukuon-doa, kenpoa, aikidoa eta beste batzuk "gerra-arteak" delako horien artean daude sailkatuta, nahiz eta bakoitzak bere berezitasunak izan. Karatea esate baterako, erasorako kirola da, judoa aldiz, defentsarako. "Malguta-

sunaren bidea" esan nahi du, Albertok esan digunez, japonieraz judo hitzak, eta bidearen bukaeran judokak ongizatea eta zoriona aurkituko omen ditu. Hau da, jatorriz judoa kirola baino gehiago, filosofia da.

Judoan ongi finkatutako jerarkia

dago, hau da judokak mailetan bereiztuta daude: hasberriek gerriko zuria eraman ohi dute, horia jartzen dute ondoren, laranja gero, berdea jarraian, urdina eta marroia ondoren, eta beltza azkenik. Gerriko beltza dutenen artean hala ere, beste hamar maila ezberdin daude.

5 URTEK AURRERA

Oso txikitatik hasten dira haurrak Billabonan judo ikasten: bost urterekin hasten dira entrenatzen, eta azkenengo urteetan asko hazi da taldea. Dena den, haurren artean ere, oraindik gutxiengoarentzako kirola dela aitortu digu.

Minik hartu gabe lurrera behar bezala erortzen ikasten dute lehenengo eta behin hurrek, izan ere, hasieran mina hartzen badute, ez dute jarraitu nahi izaten. Ondoren gimnasia lantzen dute, gorputzak ahalik eta malgutasun handiena lor dezan. Eta poliki-poliki judoaren filosofia ikasten dute. Egia da hala ere, mutikoen esan digutenez, beraiei gehien gustatzen zaiena borroka egitea dela. Telesaillek jarrera horietan eragina duela nabaria da.

Gero eta haur gehiagok egiten dute judo



MIRARI
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2
☎ 590162 ANDOAIN

TRANBURU
agentzia

Aseguruak - Aholkularitza

PROFESIONALITASUNA NAGUSI

Kaleberria, 26 beheak
☎ 59 08 14
ANDOAIN

winterthur



ogi berezi eta
artesanauak
...
etxerainoko
zerbitzua

OKINDEGIA, S.L.
Lizarratekoa, 32 / Elizmendi auzoa
20159 ASTEASU / ☎ 693294 - 691896

OGI-GOXO



• TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK
• TEILAK-ZIGARRILOAK
• HOJALDREAK • MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA


ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUA

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

KALE BERRIA 22
TELEFONOA 59 44 76 - 30 01 67 20140 ANDOAIN

ALBERTO GARAIOA, GERRIKO BELTZA ANDOAINARRA; 22 URTE; KOMERTZIALA ETA JUDO IRAKASLEA



- **Noiz eta zergatik hasi zinen judo egiten?**

- Sei urterekin hasi nintzen. Txikitari oso mutiko argala eta abula nintzen eta eskolatik beti irteten nintzen ubelunez beteta. Aitak judo ikastaroan eman zuen nire izena. Hamaika urterekin hasi nintzen txapelketetan parte hartzen.

- **Eta oso urruti iritsi zara.**

- Hiru aldiz izan nabiz Espainiako txapeldun sambo modalitatean, behin Europako txapeldunorde eta hiru aldiz Europako txapeldunorde.

- **Zer da samboa?**

- Judoko teknikak erabiltzen dira, baina ring batean egiten da, eta aurkakoarekin kontaktu gehiago dago.

- **Judoa denfentsarako kirola omen da**

- Bai, neri asko balio izan dit: baketsuago bihurtu naiz. Bestalde kontuan hartu behar da, judoko teknikak behar ez bezala erabiliz gero, oso arriskutsua izan daitekeela. Guk debekatuta daukagu lehiaketaz kanpo judo teknikak erabiltzea.

- **Profesional izatea gustatuko litzazuke?**

- Gustatu..., ez dakit. Garbi dagoena da nazioarteko punta-puntako judokak baino ez direla profesionalak. Hemen ez dute futbolearen bezainbeste ordaintzen.

- **Inoiz pentsatu al duzu Japonera joatea?**

- Ba ez dakit, judo egiten zuen lagun bat joan zen, eta itzulitakoan judoari utzi zion. Japonen judo egiten bastea, apaiz egitea bezala da.

BILLABONA

TXIRRINDULARITZARI BURUZKO I. KULTUR JARDUNALDIAK IRRINTZI ELKARTEAK ANTOLATUTA.

URRIAK 28:

11etan **haurrentzako mendiko txirringa saioa**. Ginkana saioa enparantzan. Opariak izango dira.

15.30etan **helduentzako mendiko txirringa txapelketa**. 20 kilometroko ibilaldia.

20.30: Afaria elkartean.

URRIAK 30:

20.15etan **diapositiba emanaldia**. Gaia: **Himalaya-Alasaka-Mexiko** ibilaldia. Hizlaria: Juan Carlos Nájera.

URRIAK 31:

20.00etan **txirrindularitzari buruzko mahai-ingurua**. Hizlariak: txirrindularitza arloko kazetariak eta txirrindulari profesionalak. **Aurkezlea: Xabier Usabiaga.**

AZAROAK 2:

20.00etan **txirringa bira ospetsuen diapositiba emanaldia**: Giro, Tour, Espainiako itzulia... Hizlariak: Txemi Llano eta Rafa Gómez txirrindulariak.

AZAROAK 3:

20.00etan **txirringarako prestaketa fisikoari buruzko mahai-ingurua**. Hizlariak: Iñaki Arratibel medikua, Once taldeko Txema Agirre, Euskadiko federazioko Andoni Olano eta **munduko txapeldun berri anoetarra Abraham Olano.**

AZAROAK 7:

20.00etan kirol arduradunekin mahai-ingurua.

AZAROAK 11:

20.00etan **Perico Delgado txirrindulariaren liburuaren aurkezpena**. Hizlaria eta liburuaren egilea: Julian Redondo. Gonbidatuak: Txomin Perurena, Ramon Mendiburu eta Jose Antonio Díaz.

Mahai-inguru eta diapositiba saio guztiak **Gurea zinema aretoan** izango dira.

Irrintzi elkartean bertan **mekanikari buruzko ikastaroa** eskainiko du Francis Navarro adituak. Edonork izango du ikastaroan parte hartzeko aukera. Eta aldi berean egun horietan **Perico Delgado txirrindulariari buruzko argazki erakusketa** izango da.



BILLABONAKO UDALA

**Astelehenetik
ostiralera
arratsaldeko
8etatik aurrera, eta
larunbatetan
goizero 10etatik
aurrera.**

Errebote plaza, z/g. Billabona
Telf.: 69 01 21 - Fax: 69 33 76

ANDOAINGO LA SALLEKO IKASLEAK. 1943.

Garai batean klasera sartu eta beste ezer baino lehen, maisuak edo maistrak ikasleen izen zerrenda ozen esaten zuen, inor falta ez zela ziurtatzeko. Urteetako ohitura horri esker askok gogoratzen ditugu aspaldiko ikaskideen izen-abizenak. **Migel Amasek** eta **Iñaki Fernandezek** ere ongo gogoan dauzkate La Sallen ikasle zireneko hirugarren mailako klaseko ikaskideen deiturak, pasarte honetan izen gutxi batzuk falta diren arren:



1. ilara ezkerretik eskuinera:

Xabin Mujika, Joxe Manuel Lizaribar, Genaro Astigarraga, Manolo Martínez, Migel Mari Albistur aita jesuita, Xanti Ruiz, Ramon Madinabeitia, Ildefonso Goenaga, Paulino Otamendi (Billabona), eta **Iñaki Fernández**.

2. ilara: Ezeiza, Juan Bautista Aizpurua, Luis Mari Gorostidi, Juan Bautista Iginitx, Angel Amenabar, Iñaxio Arteaga, Migel Goya, Angel Amenabar, Ezekiel Ilarduia, eta Jexux Zaldua.

3. ilara: Rico (Billabona), Felix López (Aduna), Jau-regi, Pako Ibañez (Aduna), Diego Ormazabal, Bernardo Aizpurua, Bentura Uranga, eta Iñaxio Orotegi.

4. ilara: Jesus Ormazabal, Mikel Garagorri, Jesus Gil, Pedro Ponce, Joakin Jauregi, fraile amasarra, Rikardo Iñurrita, Urrietako Isidro, eta Amasako Garmendia.

5. ilara: Mariano Garmendia (Orendain), Jesus Mari Leizeaga, **Migel Amas**, Fermin Ieregi, Ansa, Iñaxio Aranburu, eta Fermin Belamendia.

Urte haietako ikasgaiak zeintzuk ziren galdetu diegu Andoaingo bi ikasle ohiei. Doktrinari ezinbestean ematen zitzaion garrantzi handia, ondoren historia sakratua lantzen zen, hala nola Espainiako historia, gramatika, ortografia eta batez ere aritmetika. Argazkian dauden gutxi, Migel Amasek tartean, jarraitu zuten hasi berria zen eskola profesionalean, hau da "escuela de artes y oficios" deitzen zen hartan. Urte t'erdi eman zuten gutxi gorabehera lima erabiltzen ikasten Jexux Langara irakaslearen zuzendaritzapean lehenengo eta Patxi Irulegiren ondoren. La Sallen amaitu eta gero "txintxoena" Laborden hasten omen ziren lanean eta "bihurrienak" berriz, Sapa bonba lantegian.

LA SALLE BERROZPE
50. URTEMUGA



Egilea:

Josean Morlesin

ANDOAINGO KULTUR ETXEAN
azaroak 5etik - 19ra

BELEN GÓMEZ BILLABONAKO GUREA ZINEMAKO TXARTELARIA BILLABONATARRA; 25 URTE



- Jende asko joaten al da zinemara?

- Urtebete egin dugu atea ireki genituenetik. Hasierako saioretara jende izugarri etorri zen, jakinmin bez besterik ez bazen. Gaur egun obikoak etortzen dira: zinea gogoko dutenak. Igande arratsaldean etorri obi da jende gebien.

- Ze jende mota?

- Gazteak gebienbat, tabernaz taberna ibili beharrean zinema aukeratzen duten gazteak. Zizurkildik, Asteasutik eta Andoaindik ere etortzen da jendea.

- Filmeak berriak izaten al dira?

- Legez filmeak Donostian pasatu behar izaten dituzte lehenengo. Ondoren Tolosarara eramaten dituzte, eta gero Billabonara ekartzen dituzte. Aretora jotzen duen jendearen arabera ematen zaio herri bati edo besteari lehenetsuna.

- Jendea behar bezala portatzen al da aretoan?

- Haurrak etortzen direnean buila sortzea normala izan obi da. Gaztetxoak dira okerrenak: denetik ekartzen dute jateko, latako edateko eta erre ere egiten dute. Saio batetik bestera zikin-zikin uzten dute aretoa.

- Filme guztiak ikusten al dituzu zuk?

- Bai, ostiraletan. Jendeak sarreran askotan eskatzen dizu filmeari buruzko iritzia.

- Gurean ikusi duzun filmerik gustokoena?

- "Los peores años de nuestra vida".

- Eta txarrena?

- "Asesinos natos".

- Jende gebien ekarri duen filmea?

- "Los picapiedra".

- Zein da lekurik egokiena filmeak ongi ikusteko?

- Toki guztiak dira onak, baina neri atzealdean jarzea gustatzen zait.

- Bideoak asko kendu al dio zinemari?

- Garai batean beharbada; orain berriz, nik uste dut zinema gora egiten ari dela berriro.

- Zenbat balio du sarrerak?

- 500 pezetara igo berri dugu. Eta orain arte jendea ez da kexatu.

PERTSONAIA EZKUTUA

Negu Gorriak taldeko **Fermin Muguruza abeslaria** da pertsonaia ezkutua. Lehiaketa parte hartu dutenen artean batek baino gehiagok egin du huts, hala ere asko izan dira erantzun egokia bidali digutenak.



Oraingo honetan **Asteasuko Olatz Otaegi** izan da zozketan irabazle, eta berak jasoko du **Billabonako Truchuelo argazki dendak** oparitutako **walkman ederra**. Olatzek 18 urte dauzka eta administrari ikasketak ari da Donostian egiten. Esan digunez, ez zuen erantzun egokia lehenengoan asmatu, baina etxekoan laguntzaz lortu du zozketan parte hartzea eta gainera, saridun izatea.



TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA
Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923
ANDOAIN

Joxe Ramon

Taberna

PINTXO EDERRAK !!

KALE NAGUSIA, 16 - ANDOAIN

MILIKOST

**LIBURUDENDA
PAPERDENDA**

KALE NAGUSIA, 20 - ☎ 59 16 57 -
ANDOAIN

Agenda

MUSIKA

BILLABONA

Urriak 28:

Finlandiako Kvartettilaulajat abesbatza 20.00etan.

Urriak 28:

Mikel Elizeagaren "Apaiz gazte" saioa 13.00etan.

Azaroak 9:

Parkingson's taldea 20.00etan.

Saioak Gurea zinema aretoan.

ANTZERKIA

BILLABONA

Urriak 27:

Hika taldearen "Las Bellas de Easo" antzezlan 20.00etan Gurea zinema aretoan.

Azaroak 10:

Karaban taldearen "¿Qué fue de Baby Jane?" antzezlan Gurea zinema aretoan.

IKUSENTZUNEZKOAK

BILLABONA

Azaroak 8:

Felipe Uriarteren "Alaska" emanaldia 19.30etan.

HITZALDIAK

ADUNA

Azaroak 14:

Perretxikoei buruzko hitzaldia. 19.30etan Kultur aretoan

ZIZURKIL

Azaroak 16:

"Eta bihar ze eguraldi?" hitzaldia Peio Zabalaren eskutik 19.30etan Iriarte Etxean.

BESTE

ASTEASU

KIROL ASTEA. Hitzaldiak:

Azaroak 13:

Arrauna. Hizlariak: Orioko eta Donibaneko arraunlariak.

Azaroak 14:

Futbola. Hizlariak: Danena eta Billabonako kirol elkarteko kideak.

Azaroak 15:

Pilota. Hizlariak: Behar-Zana kirol elkarteko kideak.

Saioak Kultur Etxean 20.00etan.

ZIZURKIL

MUSIKA ASTEA

Kostata gazte taldeak antolatuta

Urriak 31:

19.30etan bideo emanaldia, kantu joko eta afaria.

Azaroak 2:

Berbena taldeekin hitzaldia: Akelarre, Urrats, Egan Izotz, Laiotz 19.30etan Kultur Etxean.

Azaroak 3:

Waika taldearen kontzertua 22.30etan.

Azaroak 4:

Gitarra kontzertua 22.00etan.

ANDOAIN

LA SALLE-BERROZPEREN 50. URTEMUGA

Urriak 27: Donostiako orfeoa

San Martin parrokian 20.00etan.

Azaroak 5: Mendi irteera

LITERATUR IKASTAROA BERGARAN UNED-k antolatuta larunbat goizetan. Niaren idazkerak: autobiografiak eta egunkariak: I. Dinesen, J.P. Sartre, V. Wolf, Gide, Genet, Gombrovicz, R. Barthes... ☎: 76 13 42

LEHIAKETAK

BILLABONA

I. amodio gutunen txapelketa

Gutunak udaletxera eraman beharko dira **abenduaren lehena baino lehen**. 40.000 pezetako eta 25.000 pezetako bi sari izango dira. Billabonatar onenak 20.000 pezetako saria jasoko du.

MENDI IRTEERAK

MUSKIL KULTUR ELKARTEA

Urriak 29:

Alegiko Intxurrera mendi irteera, ondoren bazkaria eta gaztain erre jana. Irteera: 10.00etan Langaurretik.

IKASTAROAK

ZIZURKIL

Gazte antzerki tailerra. Izenematea: Kultur Etxean.

MERKATU TXIKIA

BILLABONA

SS-AL matrikuladun Fiat Panda 4x4 kotxea salgai. ☎: 69 08 23.

ANDOAIN

Olivetti ET pertsonal 55 idazmakina elektronikoa 10.000 pezetan salgai. ☎: 59 02 59.

ZINEMA

Azaroan zehar Gurea zinema aretoan ostirala, larunbata, igandea, astelehena:

"French kiss"

"Waterworld"

"La flor de mi secreto"

"Alerta máxima"

KOMIKIA





BETERRIKO ALDIZKARIA




AIURRI

UDALEN BABES ETA

LAGUNTZAREKIN

M. LARRAMENDI KULTUR
BAZKUNAK ARGITARATZEN DU



Euskaldunon Egunkaria sortu arte
euskaldunak
eskubide bat gutxiago zeukan.
Bost urtetik hona, zu, euskalduna,
euskaldunago bizi zintezke.
Ez bakarrik informazioa
euskaraz ematen zaizulako.
Ez bakarrik Euskal Herri guztia
eskura ematen zaizulako. Ez.
Euskaldunon Egunkariak
normalago egin dizu errealitatea,
errealitatea bera beste modu batean
eskaintzen dizulako.



Euskaldunon
Egunkaria
Urriaren 21ean
berriturik...



azala
eta mamia!